

B


BARREN

TOKIKOM

'Mur-mur', preso sozialetan ahopeko testigantza gordinak

Alejo Rolo, preso ohia eta dokumentaleko protagonistetako bat





AEK EUSKALTEGIA

- 2. MAILA eta 3. MAILA = EGA
- Iraileko azterketak prestatzeko eskolak
- Uztailean eta irailean
- Ikasleek, gurasoek eta langabetuek matrikula erdia udalari esker
- Izena eman ekainaren 27a arte

AEK EUSKALTEGIA
PLAZA TXIKIA 3, 1
607 601 423
elgoibar@aek.org

aek

udan ere EMAN EUSKARA ELKARRI

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



**INFORMA ZAITEZ! AUTOKO AZTERKETA TEORIKOA 17 URTEREKIN!
IKASTARO TRINKOAK!**



ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO TEORIKAKO
IKASTARO TRINKOAK**

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela



Jose Luis
Azpillaga

BARRENE-
ale hau esku-
ratzerako,
HABEren az-
terketen emai-
tzak aterata
egongo dira, eta az-
ken egunetako urduritasu-
nak lekua egingo zion pozari,
kasu batzuetan, eta porrot-senti-
menduari, beste batzuetan. Azterketa ida-
tzia gainditu duzuenoi, zorionak! Gainditu ez duzuenoi, berriz: eu-
tsi goiari eta aurrera!

Irakasleok hainbat rol jokatu behar izaten ditugu: motibatzaile, ezagutza-igorle, zuzentzaile, aholkulari, eta abar. Nik gustukoa dut motibatzaile eta aholkulari izatea. Ezagutza-igorle edota zuzentzaile izateari ere ez diet muzin egiten: norberaren egoaren pizgarri ere bada. Badute arriskua, ordea; izan ere, irakasleok ezin dena jakin, eta, sarritan, irizpide-aldaketak direla eta, geure hitzak jan egin behar, ezta?

“Irakasleok hainbat rol jokatu behar izaten ditu- gu: motibatzaile, ezagutza-igorle, aholkulari...”

Gainera, nahi gabe ere, hanka-sartze ederrak egiten ditugu. Esaterako, neuri gertatua lehengo Mintza Egunean. Banangoen ni ikasle batzuekin tragoxka batzuk hartzen bazkariaren aurretik, eta txakolinari buruz hasi ginen berbetan. Nik, duela denbora dezente Xabier Kintanari irakurritako artikulua gogoan, hark esandakoak laburbiltzen saiatu nintzen; baina, akaso sagardoaren edo ribeiroaren eraginez, dena alderantziz esan nuen. Kintanak zioenez, euskal hitzari (txakolin, n-rekin) gaztelaniazkoa (txakoli) gailentzen hasi zaio zenbaiten ahotan. Bada, nik alderantziz azaldu nien ikasleei: euskarazkoa txakoli zela eta gaztelaniazkoa txakolin. Gauean ohartu nintzen akatsaz, eta, astelehenean, ikasgelan argitu nuen kontua. Amaia, zuri ez al zaizu inoiz gertatu horrelakorik?



Amaia
Larrañaga

Bai, Jose Luis, beste lan askotan bezala, guk ere denetik egin behar izaten dugu, eta zeregin batzuk gustukoagoak edo samurragoak izaten ditugu. Neuretzat ere errazagoa da motibatzaile eta aholkulari izatea, lehenengoak burukomin ugari eman arren, nahi ditudan emaitzak lortu ezean.

Beste biek ere, ezagutza-igorle eta zuzentzaile izateak, askotan zalantzak eta erantzun garbirik ez izatea ekartzen didate, nahiz eta Euskaltzaindiaren, Zubiriaren eta enparauen gramatika azalpenak begiratzen jardun, edota norberak “halako” hala dela uste izan, zure “txakolin” kontuan bezala. Baina eserak dioen bezala: usteak erdia ustel.

“Beste lan askotan bezala, guk ere denetik egin behar izaten dugu”

Askotan pentsatzen dut bi zereginok zelako zailak diren, batez ere, ikasleek beste hizkuntza batean pentsatzen badute, eta, ia beti, hala izaten da, maila aurreratua lortu arte. Honen harira, egin izan dizkidaten zenbait galdera azalduko ditut:

Zergatik da honek eta ez hauek? Zergatik da etxetik urruti eta ez etxe urruti, etxe ondoan bezala? Zergatik da ikusi zaitut eta ez ikusi dizut? Zergatik da udalarena, udalekoa, udalaz, udaletik, udal...? Zergatik da goseak nago eta ez gosea daukat? Zergatik da bero handia eta ez bero asko? Zergatik da gurasoak eta ez aitak? Zergatik da “gozoa jarri”, haserrea adierazteko? Zergatik da “astoa saldu eta mandoa erosi”? Zergatik da “ez da giro”? Zergatik da jaten dihardut eta ez jaten nago?...

Jose Luis, honezkero ohartuko zinen, galdera gehienak gaztelaniaz pentsatzeak sortzen dituela, uste izanda hizkuntza bat, normalen, norberarena, dela erdua eta besteak horren itzulpenak.

Hala ere, zailtasunak zailtasun, bakoitzak bere mailan eta bere eritmoan ikastea lortzen dute ikasleek, eta hemendik denak zoriondu nahi ditut: Gora euskara ikasleok!



2013 KOMERTZIO ETA ENPRESEN GIDA

Elgoibar eta Mendaroko komertzio eta enpresen gida prestatzen dihardugu

Zure enpresaren helbidea edo telefono zenbakia eguneratu nahi badituzu, deitu 943 744 112 edo 943 743 704 zenbakira edo idatzi barren.publi@elgoibarkoizarra.com helbidera.

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunk.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argotia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argotia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDELA

elgoibar
biZi-biZaXal



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



■ GUTUNAK

Eskerrik asko

Eskerrik asko ELA sindikatuari, borrokan hastera animatu gintuelako, eta prozesuan zehar gure alboan egoteagatik. Eskerrik asko, egoiliarrei, haien senideei, gure etxekoei, lagunei, Maalako ostalariei (Maala, Iriondo, Ilunpe...), elgoibartarrei, LAB sindikatuari, Gipuzkoako Foru Aldundiari (Ander Rodriguez, bereziki), enpresari, Elgoibarko Udalari, San Lazaro patronatuari, Elgoibarko brigadari, Eguneko Zentroko langileei eta gure egoera ulertu eta borroka hau aurrera eramaten lagundu diguten guztiak.

San Lazaro egoitzako langileak ☺

Animatu bertso eskolarak!

Bertso eskolan beti oso pozik gaude inoiz ez gara etortzen irribarre gabe lehenengo egunean merienda debalde etorri nahi baduzu gonbidautza zaude

Beinke bertso-eskola ☺

Sustraien energia

Bada denbora 2007an sustraietatik energia ateratzeko elektro bidezko sistema Wagingeneko unibertsitatean patentatu eta Holandako Nioo instituto ekologikoan martxan jarri zutenetik. Diotenez, sustraiak isurtzen dituzten hondakinak eta berauek jatera joaten diren bakterien arteko sinbiosi horretatik sortzen den berotasuna jaso eta elektrizitatea sortu daiteke. Sinestezina! Beste energia berriztagarriak baino inpaktu paisajistikotxi-kiagoa izanik efizientzia eta onura handiagok ditu.

Energia honek etxebizitzan eraikuntzan ikuspegi ekologikoa barneratzeko aukera emango digu, jasangarritasunean aurrera pausoak emanez eta Endesaren fakturak ahaztaraziz, osasunean irabazi eta dirutan aurreztuz. Honela, eraikuntza berri batek, familia baten energia kontsumoa bete ahal izango du, etxeko sabaian kokaturiko instalakuntza eta landareriaren bitartez. Etxebizitza bizia babesten den heinean, elektrizitatea sortuko dugu eta gure herri eta hirien modernizazioa bideratuko dugu, hirigintza eta landa eremuaren arteko integrazioa lortuz.

Helburua, teknologia honekin Basogintza zentru ekologiko bat eraikitzearena da, eta horretarako laguntza ezinbestekoa da.

Bidaiaren ondoren, etxera itzultzean, energia sistema berritzaile honen inguruko azalpen guztiak, eta instalakuntza eta garapen bideak jorratzeko konpromisoa hartzen dut.

Eman diezaiegun bizia sustraiei, eman diezaiegun bizia herriari!
<http://www.lanzanos.com/proyectos/basapiztu/> Basapiztu blogak.com/ Facebook basogintza

Mikel Etxabe ☺

Ba60az?

Ikusi nahi ez bagenuen ere, etxeko buzoian gogorarazi digute. Gipuzkoan, gutxien birziklatzen dugun eskualdea gara. 2016rako %60ko helburutik urruti gabiltza. Hondakinen eztabaidak parametro normal guztiak hautsi dituen honetan, ezin dugu ulertu zergatik Elgoibarren ezin den akordio zabal bat lortu gai honen inguruan. Zergatik Zumaiian edo Azpeitian posible dena eta txalotzen dena ez duen hemen bere egiten Udalak. Zein da arazoa? Edo Elgoibarko eta Debabarrenako biztanleak zer gara, "bereziak"? zikinoagoak?

Guk ez dugu eztabaida saihestu nahi, hitz egin beharra dago eta herritarren papera azpimarratu nahi dugu gai honetan, beste guztietan bezala. Alabaina, eztabaida ez dugu biltzeko sistemaren inguruan kokatu nahi. Emaitzen inguruan, hau da, posible den gehiena birziklatzearen inguruan, ardura denon esku jartzeaz eta eredu bakoitzaren ondorioez (osasuna, kutsadura) eztabaidatu nahi dugu.


Horregatik, ekainaren 26an, arratsaldeko 19:00etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan Herri Biltzara egingo dugu hondakinen inguruan, informatu bai, baina eztabaidarako irekita eta herritarren proposamenak jasotzeko asmoz.

Elgoibartar moduan, gonbidatuta zaude, beraz. Eta ekarri inguruko lagunak. Eztabaidak beti dira-eta aberasgarriagoak zenbat eta gehiagok parte hartu.

EHBildu Elgoibar ☺



Aitzolako isletako seinaleak hondatuta daude: "Aitzolako isletako seinaleak lurrera botata daude, eta errepidean bertan sartzen dira. Nahiko estua da ingurune hori dagoeneko, eta seinale horien eraginez gehiago estutzen da. Nahiko arriskuetsua iruditzen zaigu, beraz, eskertuko genuke konpontzea. Mila esker". Hirigintza arduradunak esandakoaren arabera, Foru Aldundia egoera horren jakitun da, eta las-ter konpontzea espero dute.



Maalako errotondan nork dauka lehentasuna; Urazanditik jaisten denak ala errotonda barruan dagoenak? Urazanditik Maalako errotondara jaitea ez da erraza izaten, errotonda barruan dauden auto gidariek ez baitute pasatzen uzten. Udaltzain buruarekin hitz egin du BARRRENEK, eta hark esandakoaren arabera, errotonda guztietan bezalaxe, errotonda barruan dagoenak dauka lehentasuna, eta errotondara sartu nahi duenak zain egon behar du. Beraz, Urazanditik errotondara sartu nahi duenak errotonda libre dagoenean egin behar du.



Txalo bero bat CD Elgoibarko kadeteen entrenatzaileei: "Gurasoek eta jokalariek eskerrak eman nahi dizkizuegu CD Elgoibarko kadete B taldeko entrenatzaileei. Javi Salazar eta Ion Gabilondo txalotu nahi ditugu, denboraldi oso ona egin dutelako. Zorionak eta eskerrik asko egin duzuen lan guztiagatik".



Txalo bat Sinuoseri, metal gaua antolatzeagatik: "Giro polita egon zen zapatuan Maalako parkean, eta izugarri gozatu genuen. Azkenaldian kontzertu asko antolatzen ari da Sinuose, eta lan handia egiten dute. Txalo bat merezi dute, Elgoibarko kultur eskaintza aberasteko egiten duten ahaleginagatik. Segi horrela, musika zaleok eskertzen dugu-eta!".

Txalo bat Ikastolako DBH3ko guraso eta ikasleei: "Ikastolaren Eguna izan zen ekainaren 8an eta dena oso ondo antolatuta egon zen. Giro aparta izan zen egun osoan zehar eta oso ondo pasatu genuen. Zorionak eta eskerrik asko, Guraso Taldearen partetik".



Hondakin organikoak eta errefusa zabortegi handietara garraiatzeko gunea inauguratu dute Arriaga auzoan

Debabarrena eta Debagoienako mankomunitateei emango die zerbitzua

Hondakin organikoak eta errefusa garraiatzeko transferentzia gunea inauguratu du Gipuzkoako Hondakin Kudeaketak Arriaga auzoan. Debagoienan eta Debabarrean organikoak eta errefusa biltzen duten kamioiek gune berri honetara eramango dituzte hondakinak, eta gero materia hori guztia dagokion tokira eramango dute kamioi handiagoetan. Guneak 8.500 metro karratu ditu, eta 1,4 milio euroko kostua izan du. Gune hori bera da GHK-k jabegoan duen lehen transferentzia gunea. Inaugurazio ekitaldian, Elgoibarko alkate Alfredo Etxeberria, Debabarrenako mankomunitateko Arcadio Benitez, Ingurumeneko Foru diputatu Iñaki Errazkin eta GHK-ko lehendakariorde Ainhoa Intxaurrendieta izan ziren. Azalpenen bideoa ikusteko: www.elgoibarren.net



Aitor Doradok jaso du IMHko ikasle ohi aipagarrienaren saria

Amaitu da ikasturtea eta diploma banaketa ekitaldiarekin batera, IMH Sariak banatu zituzten atzo. Aitor Dorado elgoibartarrak jaso zuen ikasle ohi aipagarrienaren saria. 2000-2002 urteetan Goi-mailako Fabrikazio Mekanikoko Diseinua ikasi zuen IMHn. Egun autonomoa da, eta DIC-Ingenieria enpresa sortu du. Aurtengo ikasle aipagarrienaren saria Jon Goenaga azpeitiarrak jaso du, fabrikazio alorreko saria Jon Ander Garagartza mutrikuarrari eman diote eta ikasle elgoibartar aipagarrienaren saria Edorta Martinezek jaso du.

Toletxegaineko pasabidea erabiltzeko prest dago

Eguaztenean zabaldu zuten Toletxegaineko pasabidea, eta ordutik erabiltzeko prest dago. Bi igogailu eta eskailerak jarri dituzte Pedro Muguruza etorbidea eta Gabriel Krutzelaegi kalea lotzeko. Pasabide horri esker garraio publikorako irisgarritasuna hobetuko dela uste dute agintariek, eta besteak beste, herritarrek irabazitako arintasuna eta segurtasuna nabarmendu dituzte Ana Oregi Jaurilaritzako Lurralde Politikarako Sailburuak eta Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak. Pasabide berria Eusko Jaurilaritzaren, Euskal Trenbide Sarearen eta Udalaren arteko lankidetzaren emaitza izan dela aipatu zuten inaugurazio ekitaldian.



Protagonista **Mausitxa**



Mausitxako gaztak irabazi zuen joan zen aste-buruan Bilboko Idiazabal Gazta Txapelketa. Euskal Herriko 27 gaztagilek hartu zuten parte guztira, eta Elgoibarko Mausitxa baserriko gaztak lortu zuen puntuaziorik altuena, epaimahaikideen iritziz. Sari honi esker, Elgoibarko Gabon Zahar Ferian urteko gazta onena aukeratzeko egingo den txapelketan parte hartu ahal izango du Mausitxak. Idiazabal Jatorri Izendapenaren Batzorde Arautzailearen ardurapean urtean zehar antolatzen diren ardi-gazta lehiaketa bat edo gehiago irabazten duten gaztagileak batzen dira Elgoibarko txapelketan.

Egitasmoa **KZgunean ordutegi berria**

Ekainean goizez egongo da zabalik KZgunea, 9:00etatik 13:00etara, eta uztailean, aldiz, arratsalde zabalduko dute, 16:00etatik 20:00etara. Bi hilabeteotarako hainbat ikastaro antolatu dituzte, euskaraz zein gaztelaniaz: oinarriko Internet ezagutzak, sare sozialen erabilera, administrazioko kudeaketak egiteko ikastaroak eta software libreak buruzko saiok eskainiko dituzte, besteak beste. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 023 640 telefonora deitu edo tutor.elgoibar@kzgunea.net helbidera idatzi daiteke.

Irudia **Prekariatateak baditu milaka aurpegi**



Prekariatateari Stop lemapean elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek joan zen zapatuan. Prekariatatearen aurkako taldeak eta Kaleratzeei Stop taldeak deitu zuten elkarretaratzera. Gai horri lotuta, mahaingurua egin zuten atzo Musika Eskolako auditorioan. Gurutze Gorriko Sonia Guisasaolak, Elkartzen elkarteko Regina Maiztegik, Kaleratzeei Stop taldeko Iñaki Kortabitartek eta Emakumeen Asanbladako Danele Sarriurgartek hartu zuten parte ekitaldian, Ainhoa Mendibilek gidatuta. Hizlari bakoitzak bere elkartearen ikuspegitik prekariatatea zer den azaldu zuen.

Debabe Udal Euskaltegian matrikula zabalik

DEBABE Udal Euskaltegiak jakinarazi du Uda Ikastaroan izena emateko epea ekainaren 28an bukatuko dela. Interesatuak 942 742 731 telefonora deitu edo Udal Euskaltegiara jo dezakete (Kalebarren plaza 2 zenbakia).

Osoko Bilkurak Internetez zuzenean emateko eskatu du PPko zinegotziak

Javier Nuñez PPko zinegotziak Osoko Bilkurak zuzenean emateko eskatu du. Internetez, streaming bidez, Udalaren webgunean Osoko Bilkura zuzenean jarraitzeko aukera izango lukete herritarrek, eta gainera, han geratuko liriateke gordeta, edonork nahi duenean kontsultatzeko. Gardentasunaren aldeko apustua egiten du zinegotzi popularrak, eta gai hau hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mozioa aurkeztu du Udalean.

Mendaroko udaleku irekiak prest daude

In Leike aisialdi taldeak udalekuak antolatu ditu Mendaron, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Azpilgoetako Kultur Etxean batuko dira umeak, aisialdiaz gozatzeko. 4tik 6 urtera bitarteko umeak astelehenetik barixakura joango dira, 10:00etatik 12:30era. Interesatuak 45 euro ordaindu beharko dituzte. 7tik 12 urtera artekoak, berriz, astelehen, asteazken eta barixakuetan batuko dira, 10:00etatik 13:00etara. Martitzen eta eguenetan kirol saiok izango dituzte aukeran. Udalekuetan soilik izena ematen dutenek 35 euro ordaindu beharko dituzte. Udalekuak eta kirol bat aukeratzeko dutenek 45 euro, eta bi kirol aukeratzeko dituztenek 50 euro. Kirola soilik nahi dutenentzako prezioa 20 eurokoa izango da. Familia ugariak 5 euroko deskontua izango dute. Informazio gehiago, Ludotekan.

Ekainaren 25etik 28ra izango da Elgoibarko Pintxo Lehiaketaren bosgarren edizioa

25 tabernak hartuko dute parte lehiaketan

Elgoibarko Pintxo Lehiaketaren 5. edizioa antolatu du Udalak, herriko ostalaritza sektorea sustatzeko. Ekainaren 25etik 28ra bitartean izango da. Martitzenetik eguenera, 19:00etatik 22:00etara, eta barixakuan 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 22:00etara. Lehiaketako pintxo guztiek 1,10 euroko prezioa izango dute.

Aurtengo edizioan 25 tabernak hartuko dute parte, iaz baino lau taberna gehiagok, hain zuzen ere: Sigma, Gorbea, Larre, Ametsa, Usua, Ibai-Ondo, Iturri, Mahats, Tantaka, Gabi, Orbea, Eguzki, Salento, King-Kong, Xagua, Ilunpe, San Roke, Marem, Viento Sur, Gran Siglo, Txarriduna, Iriondo, Maala, Pilon eta Lanbroa.

Sariak

Pintxoak originala izan behar du, eta taberna bakoitzak erabakiko du prestatzeko modua. Antolatzaileek hiru sari banatuko dituzte:

1) Elgoibarko pintxo onenaren saria: epamahaikideek pintxo guztiak probatu ostean emango duten saria.



lazko argazkia: King Kong jatetxeak jaso zuen epaimahaiaren saria eta Viento Sur gastrotekari eman zioten saria herritarrek.

2) Baserikoa saria: Elgoibarko baserrietako produktuekin eginiko pintxo onenaren saria.

3) Herritarren saria: Herritarren botoekin aukeratutako pintxo izango da. Botoa ematen duten guztien artean Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastatze-menua zozketatuko dute.

7.094 euro eman dizkiote suhiltzaileek Bergarako Elikagai Bankuari



Suhiltzaileek ezin dute greba egin, gutxieneko zerbitzua ematera derrigortuta daudelako. Hala ere, suhiltzaileetako batzuk maiatzaren 30eko deialdiarekin bat egiten zuteneguz, egun hartako soldata Bergarako Elikagai Bankuari ematea erabaki zuten. Eibar, Oñati, Legazpi eta Ordiziako suhiltzaileek hartu dute parte ekimen honetan, eta guztira 7.094 euro batu dituzte. Argazkian Eibarko eta Oñatiko suhiltzaileen ordezkariak ageri dira, tartean losu Merino elgoibartarra, Bergarako Elikagaien Bankuko arduradunarekin.

IK4-Ideko Zentro Teknologikoa saritu dute

Ponentzia onenaren saria eman zioten Elgoibarko IK4-Idekori, ekainaren 12tik 14ra Donostian egin zuten Makina-Erremintaren eta Fabrikazio Teknologien Biltzarrean. Elgoibarren dagoen Zentro Teknologikoak "Makina-Erremintan pieza gordinen lerrokatze automatizaturako 3D ikuspegi integratua" izeneko ponentziagatik jaso zuen saria.



Samsic enpresarekin akordioa izenpetuta, lanera itzuli dira San Lazaro egoitzako langileak, 45 eguneko grebaren ostean

Enpresa hitzarmena sinatzera behartzeko, hiru bat asteko kanpaldia egin dute langileek

Lanera itzuli ziren eguaztenean San Lazaro egoitzako langileak. Bukatu dute greba, 45 egun iraun dituen greba. Gorabehera askoren ondoren, lan gatazka larregi luzatzen ari zela iritzita eta grebaren ondorioak zuzenezuzenean egoiliarrei eragiten ziela ikusita, San Lazaro egoitzako patronatuak onartu du Foru Aldundiak sindikatuekin sinatutako hitzarmenean jasotako baldintzak bermatzeko falta zen dirua jartzea, eta ondorioz, enpresak baietza eman zuen martitzenean. Udalak emandako datuen arabera, hitzarmen hori gauzatzeko 45.000 euroko kostua du urtean, eta 26.000 jarriko ditu San Lazaro Patronatuak [Gainerakoa Foru Aldundiak jarriko du]. Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkate eta San Lazaro egoitzako presidenteak argi laga nahi izan du "Diputazioak behartuta" hartutako erabakia izan dela, eta ohartarazi du horrek egoitza "mendeko bihurtzeko" arriskua ekar dezakeela.

Atzera begirakoa

Gutxienez iaizko urrira egin behar da atzera Gipuzkoako adinekoen zentroetako lan gatazkaren nondik-norakoak azaltzeko. Orain arteko lan-hitzarmen kolektiboak 2013ko uztailaren 7an balioa galduko zuela-eta, negoziazio mahai bat sortu zuten Adeg patronalak eta langileen ordezkariak, langileak jakitun zirelako hitzarmena berritu ezean egun horretatik aurrera Espainiako Lan Erreforma aplikatuko zitzaie. Nagusiki hiru ziren Gipuzkoako adinekoen zentroetako langileen eskakizunak: hobekuntza klasikoak (KPlaren igoera, besteak beste), Espainiako Gobernuaren Lan Erreformak eraginik ez izatea Gipuzkoan eta sinatzen zuten akordioa "blindatuta" egotea. Patronalak, baina, ezetza eman zien, eta egoera horretan Gipuzkoako Foru Aldundia sartu zen jokoan. Diputazioa bera da adineko zentroetan eman beharreko zerbitzuak zehazten dituen. Ratio batzuk zehazten ditu:



zenbat langile behar diren, zein kategoriatakoak... eta horien arabera, "tarifa bakar bat" kalkulatzeko. Enpresek jasotzen duten diru horren %70 langileen soldatak ordaintzeko izaten da, eta gainerako %30a mantenu gastuetarako.

Bada, apirilean, hitzarmen bat sinatu zuen Foru Aldundiak sindikatuekin: hitzarmen horretan jasotako langileen baldintzak bermatzeko, Foru Aldundiak 8,2 milioi euro agindu zituen bi urterako, eta ondoren beste milioi bat agindu zuen, "enpresari begira egindako keinu gisa". Elgoibarko kasuan, baina, Samsic enpresak [San Lazaro egoitza kudeatzen duen enpresa pribatua] ez zuen onartu, eta egoera horretan Elgoibarko Udalerak jo zuten langileek, San Lazaro egoitza, berez, Udala egoitza dela arrazoituta. Udalak enpresarekin zuzeneko harremana duela-eta, auzian esku hartzeko eskatu zioten langileek Alfredo Etxeberriari, eta alkateak erantzun zien Diputazioak jarritako kopurua ez zela aski hitzarmena gauzatzeko, eta Udalak ez zuela euro bakar bat jarriko, "kontraesanean" erortzea litzatekeela arrazoituta. Etxeberriaren esanetan, beste udal batzuek dirua jartzea erabaki zutelako dute orain zahar etxe batzuek duten zorra, eta hori traba da udalen jabetzako egoitzak Diputazioaren titulartasuneran igarotzeko.

Diputazioa, baina, ez dago konfome Etxeberriak esandakoarekin. Foru Aldun-

diak dio San Lazaro egoitzan euren ezarritako ratioak gainditzen dituztela, eta berez, euren ez dutela euren zehaztutakoaren gainera daudenen gastuen kargu egin beharrik. Horiei aplikatu beharreko hobekuntza gastuen kargu [KPlaren igoera, esaterako] Udalak edo enpresak egin behar duela, "gaur arte egin duten modu berean".

Egoera horretan, ekainaren 13an Elgoibarko Udalak dirua jartzeko prest zegoela adierazi zuen, beti ere, Foru Aldundiak gastu hori zor gisa bere egiten bazuen. Martitzen honetan, berriz, dirua San Lazaro Patronatuak jarriko zuela esan zuen, eta Diputazioak behartuta hartutako erabakia izan dela nabarmendu zuen. "Beharrezkoa izango den ekarpena egingo dugu, orain arte sortu ahal izan den aurrezkitik hartuta", esan zuen. Gogor egin zuen Diputazioaren kontra. "Argi utzi nahi dugu aurretiko gaitasuna honela murriztu izanaren ondorioz, arriskuan jartzen direla San Lazaro egoitzak eskaintzen duen zerbitzuaren iraunkortasuna eta kalitatea". Hori gerta ez dadin eginahalak egingo dituztela esan zuen, eta argitu zuen Patronatuak agindu duen diru ekarpena, aurrezkitatik eta inbertsioetarako bideratutako partida estutzetik etorriko dela.

Lan gatazka honetan bi aldeek izan duten jarrera ere salatu du Etxeberriak. "Gaur arte behin bakarrik batu dira langileak eta enpresa, eta, gainera, Udalak akuitatu ostean. Bata zein bestea ez dira egoerak eskatzen zuen mailan egon", esan du.

Erretratu zaharra



1983

Aste honetako erretratu zaharra Josu Iparragirrek bidali du BARRENEKO erredakziora. Jaunartzea egin zuten mutiko horiek egun hartan, orain dela 30 urte hain justu ere. San Bartolome parrokia atzean aterata dago argazkia, bolatoki zaharrean. Gogora ditzagun zeintzuk diren gazte horiek: **Atzean:** Jon Bastida, Zigor Azkoaga, Aitor Badiola, Oier Aldazabal. **Aurreko ilaran:** Josu Iparragirre, Imanol Etxeberria eta Jon Astigarraga.



ESKERTZA

ANDRES GRANADOS BAENA

2013ko ekainaren 13an hil zen.

“Beti gogoan izango zaitugu”

Elgoibarko Udalaren Musika Banda




ESKERTZA

GREGORIO ESNAOLA LARREATEGI

2013ko ekainaren 16an hil zen.


Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.



PRESO SOZIALAK, ITZALETIK ARGITARA

Martuteten preso egondako sei lagunek ahopean eta ondo kostata egindako aitorpenak jaso ditu Juanmi Gutierrezek *mur-mur* izeneko dokumentalean. Sei preso sozialen esperientzia mingarriak dira, barru-barrutik kontatutakoak, eta horregatik ez da harrizkoa ikusentzulea hunkitzea. Ez da hori, baina, Gutierrezen helburu nagusia. “Jendarteak ikusezin egindakoak dira, eta errealitate hori bistaratu nahi izan dut”, argitu du. “Gizarteak baztertutako” horietako bat da Alejo Rolo elgoibartarra. Drogarekin lotuta kartzelaratu zuten, eta sei urte egin zituen Martutenen, preso. Atzo, Ongarri zineklubak antolatuta, Herriko Antzokian aritu zen Juanmi Gutierrez dokumentalaren gaineko azalpenak ematen, eta aitzakia hori baliatuta, biak batu ditu BARRENEK, preso egondakoa eta urteetan preso sozialekin lanean ibilitakoa. Dokumentala ikusteko: vimeo.com/63884827

Ainara Argoitia



JUANMI GUTIERREZ

ZINEMA ZUZENDARIA



“Makrokartzelak egiteko dirutza prebentziorako politiketarako dirutik osten dute”

Karga sozial handiko lanetan espezialdua da Juanmi Gutierrez (Errenteria, 1945), eta osagai horretatik asko du *mur-mur* bere azken dokumentalak ere. “Lehen inpresioak baztertu eta pertsonengana ahalik eta gehien gerturatzea izan da beti nire nahia. Denok daukagulako atzealde ilun eta argi bat, eta atzean garen hori delako benetan interesgarria dena”, azaldu du. Preso sozialengana gerturatu da oraingotan.

Preso sozialez ari zara eskusiboki dokumentalean. Zer dela eta?

Bi arrazoi daude. Batetik, preso sozialen ikusezintasunaz ohartarazi nahi genuen. Gure herrian ahaztuenak eurek dira. Jendarteko pobreenak dira, zatarrenak, ahulenak, eta gizarte honen begietara haiek egin dutenak ez du inolako justifikaziorik. Preso sozialak eta politikoak bereiztu egiten ditu gizarteak: txarrak dira batzuek, eta onak besteak. Bada beste arrazoi bat ere, baina. Gu dokumental honetan lanean hasi ginen sa-

soi beretsuan, *Barrura begirako leihoak* lana prestatzen hasia zen Xabier Martin lankidea, eta horregatik, iruditu zitzaigun presoengan hau jasota utziko genuela denon artean.

Zerk bultzatuta hasi zineten dokumental honetan lanean?

Esperientzia pertsonal batetik abiatutakoak dira nire lan guztiak, tripako mina eragin eta barrenak jaten zizkidan hori kanporatu asmoz egindakoak. Orain dela bost urtetik hona Kany Peñalba ekoizlea eta ni hilero joaten gara Martuteneko kartzelara. (EPA) Helduen Hezkuntza zerbitzuarekin elkarlanean zinekluba jarri dugu martxan kartzelan, eta, filmen bidez, askotariko gaiak lantzen ditugu. Filma ikusi ondoren solasaldi antzeko bat izaten dugu, eta izugarri gogoeta interesgarriak irteten dira. Bost urteko esperientzia horri esker harreman polita sortu da Martuteneko presoengan eta gure artean, eta horrek bultzatuta hasi ginen lanean.

Nola definituko zenuke zuk kartzela?

Min handiko aldia da kartzelaldia. Babesgabetasun aldia han sartzen direnentzat. Zerbait egiteko gogo guztiak uxatzen zaizkie han, eta beltz, ia ezinezko, ikusten dute gizarteratzeko aukera. Uste dut nortasun gogorrekoa izan behar dela kartzela barruan egon eta mundua gainera etorri zaizula sentitu gabe irteteko handik. Uste dut hori preso politikoei ere gertatzen zaiela, baina kontua da preso sozialek askoz zailagoa dutela, kartzelatik irtetean kopetan etiketa bat dutela irteten direlako: zuk ez duzu lanerako balio, ez duzu etxe bat alokatzeko balio, zu ez zara gai beste norbaitetaz maitemintzeko... eta antzekoak sinistuta irteten dira.

Dokumental honek gauza askotaz pentsatzera eramaten gaitu. Zer da, baina, zuk erakutsi edo nabarmendu nahi zenuena?

Haiekin enpatizatu nahi nuen. Ikusezin direnak ageriko egin nahi nituen, preso sozial guztiekiko elkartasunez. Baina haien esperientziak entzun ostean —balore handia behar delako kontatzen dituztenak kontatzeko—, espetxe sistemaren gaineko gogoeta sustatzeko beharra ere sentitu nuen. Eredu anglo-saxoietatik hartutako makrokartzelen, kartzela pribatuen, eta aurkezten ari zaizkigun gainerako mehatxu sorten gainean hausnartarazi nahi nuen. **Zaballako kartzela, Zubietan 2014an zabaldu asmo dutena... Lagundu edo tratatu egingo dute presoengan errehabilitazio eta gizarteratzea makrokartzelak?**

Aurreko legealdian, Espainiako Espetxe Erakundeetako zuzendaria Mercedes Gallizo zen garaian, saiatu ziren kartzelak errehabilitazio programarako Gobernu Kanpoko Erakunde antzeko bat bihurtzen —mesedez, jarri munduko komatxo guztiak hemen—. Sortu zituzten errespetua lantzeko moduluak, drogatik libre izango ziren moduluak... eta egin zituzten saiakera batzuk, baina argi esan behar da saiakerek kasu banaka batzuetan bakarrik eman zutela emaitza ona. Presoengan gehiengo zabal batekin ez zuen funtzionatu. Zergatik? bada, besteak beste kartzela ez delako horretarako lekua. Droga terapia ez da egin beharko litzatekeen moduan egiten kartzelan. Hori kanpoan egiteko kontua da. Eta ez da hori bakarrik. Makrokartzela handi horietarako bideratzen den di-

rutza guztia, izugarri dirutza handia delako, prebentzio programak martxan jartzeko izan beharko lukeen dirutik osten ari dira. Adibidez: delituren bat egina eduki edo ez, adimen urritasuna dutenentzako lekua ez da kartzela izan behar. Eta berdin gertatzen da drogarekin arazoak dituztenekin. Jende hori errehabilitatzeko lekua ez da kartzela, baizik horretara bideratutako zentro egokitu bat, dela *Proyecto Hombre* edo beste edozein. Izan ere, droga-menpekotasuna duenak droga lortzeko egiten du delitua. Presoengan gizarteratzea errazteko lanean diharduten erakundeek, Arrats eta Salhaketa modukoek, gero eta diru gutxiago jasotzen dute, makrokartzelen proiektuetan xahutzen ari direlako diru hori. Berezik deigarria da prebentziorako proiekturik ez dagoela eta erakuntza enpresak diru asko ari direla irabazten.

Beldurraren jendartea sortzeko interesaz mintzo da presoetako bat. “Kartzelaz saldu nahi duten irudia da”, dio. Zer dela eta interes hori?

Gizarteak joera dauka pertsona batzuk estigmatizatzeko eta haien aurrean kontu handiz ibili behar dela zabaltzeko. Hori da beldurraren teoria: dena da arriskutsua, salbu unean-unean Gobernuan daudenek zehazten dutena. Eta, jakina, arau horiek, arau kapitalista horiek, zuzentzen dute hemen guztia. Eta zertarako erabiltzen da beldurraren teoria? bada, gizartea arau horien kontra jarri ez dadin; jendea ez dadin arau horiek zalantzan jartzera ausartu.

Martutenen sartu aurreko aroaz ari dela, barkadatea hitza aipatzen du presoetako batek. Bitxia da, baina ‘onarpen’, ‘elkar ulertze’, ‘laguntasun’ eta ‘maitasuna’ moduko berbak erabiltzen ditu gero preso lagunez ari dela. Zer pentsatua ematen du. Zer erantzukizun daukagu gutako bakoitzak guzti honetan?

Handia. Gutako edozein izan daiteke delitugile, edo gutxienez, gutako edozeinek buka dezake kartzelan. Gerta daiteke bi kopa hartu

ostean errepide istripu bat izatea eta biharamunean Martutenen sartzea. Batetik hori, eta bestetik, bizitzan hutsegiteren bat egin duen edonork dauka errehabilitaziorako eskubidea. Argi dago, gainera: laguntasun minimo bat jasotzen dutenen portzentaje handi batek lortzen du errehabilitatzea eta gizarteratzea.

Elkarrizketatutako presoek eurek ohartarazten dute zailagoa dela kartzelatik irtetea espetxean bukatzea baino.

Irteerako neua tragedia handi bat da asko eta askorentzat. Kartzelan erabat hondoratzen dira, autoestimua lur jota dutela bukatzen dute, hutsaren hurrengo sentitzen dira, eta askatasun gutuna jasotzen dutenean galduta sentitzen dira.

Gero eta jendarte indibidualistagoa da gurea. Dokumentalean, baina, jendearteak baztertutakoei laguntzen diharduten anonimo askori eman diezu ahotsa. Zer garrantzia ematen diezu haien lanari?

Funtsezko lana egiten dute, ezinbestekoa. Batzuek gauza praktikoetan laguntzen diete presoei, baina badira beste batzuek huts-hutsean presoekin egotera joaten direnak kartzelara. Besarkada bat jasotzea, edo besterik gabe, norbaitek entzuten dituela ikustea izugarria da eurentzat. Dokumentalean askatasunaz eta aska-

“Edozein izan daiteke delitugile, edo gutako edonork buka dezake kartzelan”

tasun ezaz hitz egiten dugu, baina askatasuna ez da lortzen lau hormen artetik irtetea lortzen den unean. Euren bizipenak kontatzera ausartzen diren unean, barruko korapiloa askatzea lortzen duten momentuan, lortzen dute barne askatasuna, bestea bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa dena. Pertsona sentitzea beste ezeren gainetik dagoelako.

“Idea eta bizinahi oro zapuzteko lekua da kartzela”, diozue. Hala

ere, elkarrizketatu dituzuen presoek bizinahi handia erakusten dute. Positiboan emandako tragedia da zuena.

Egin ginezakeen bestera ere. Saia gintezkeen behin eta berriro jausten diren pertsonekin, asko direlako horietakoak ere, baina esperientzia positiboak gustatzen zaizkit. Bizitzagatik borrokatze-ko prest daudenak interesatzen zaizkit niri. Gainerakoak errespetatzen ditut, maite ditut, baina film honetan ez zuten lekurik.

ALEJO ROLO

PRESO OHIA



Zergatik sartu zintuzten preso?

Droga trafikorekin lotutako delituengatik. Ez nuen sekula pentsatuko Martutenen bukatuko nuenik. Kokaina menpekotasunak eraman ninduen kartzelara, droga kontsumoa pagatzeko egin nituen egin nituen txorakeria gehienak, eta onartzen dut ordaindu beharra neukala. Eta ordaindu dut, gainera; garesti, ordaindu ere. Sei urte egin nituen Martutenen preso, eta zinez diotsut bizitzako une gogorrenak izan zirela. Badira zortzi urte askatasun gutuna eman zidatenetik, eta orain, gaixo nago. Gibelesko gaixotasun larria daukat, eta kimioterapia hartzen nabil. Urtebetez bajaran nago. Zorionez ez nuen zomorroa harrapatu [Giza Immunoeskasiaren Birusaz ari da, hiesa eragiten duen birusaz]. Horrezaz gain, %54ko ezintasuna daukat.

43 urte dituzu orain. Kartzelan sartu zintuzten garaian droga oso zabaldua zegoen gure inguruan, eta zer esanik ez Elgoibarren. Nola oroitzen dituzu garai haiek?

“Kartzelak oso mesfidati egiten zaitu”

Sei urte egin zituen Alejo Rolo elgoibartarrak Martuteneko kartzelan preso, eta aitortu du bizitzan inoiz ez duela orduan besteko beldurrik pasatu. “Oso bakarrik sentitzen nintzen, oso-osu bakarrik”. Familiaren eta Arrats gobernuz kanpoko erakundearen laguntzarekin, baina, lortu du handik irten eta bizitza berri bati ekitea.

Ahazteko ahalegina egin dut, baina garbi esango dizut: garai zailak izan ziren. Droga oso zabaldua zegoen Elgoibarko koadrila askotan, eta haietako batzuek zomorroa ere harrapatu zuten. Jende asko hil zen. Garai hori bizitza tokatu zitzaidan. Harrapatuta geunden, eta egin behar ez genituenak egiten hasi ginen. Gaur beste informazio ere ez zegoen orduan! Etxekoek, amak bereziki, ikaragarri sufritu zuen. Ikaragarri sufriarazi nion. Nire bizitzak, baina, 180 graduko buelta eman du. Ahaztu dut garai hura, pasa dut orria. Denarekin eten nuen. Orduko lagunak, jende negatiboa edo niretzat kaltegarri izan zitezkeenak...16-18 urte daramatzat Donostian bizitzen, eta Elgoibarrera joaten naizenean etxera joaten naiz. Lagun banaka batzuk mantentzen ditut. Justo [Arriola] eta Iriondoneko Amaia, esaterako. Horiek hor izan ditut beti, laguntzeko gertu, eta bihotzez eskertzen diet. Zure kontuak entzungo dituen norbait izatea bakarrik handia da.

Nola gogoratzen duzu kartzelan sartu zintuzten eguna?

Sekulako kolpe gogorra izan zen. Inoiz ez dut horrenbeste beldur pasatu. Kartzelak oso mesfidati egiten zaitu. Film amerikarretatik ezagutzen nituen nik kartzelak, eta izugarrizko pelikula egin nuen buruan. Ez da horrenbesterako. Hori bai, beldurra, bakardadea, ezinegon hori... horiek denak bizi dituzu han barruan, muturrera eramanda. Oso bakarrik sentitzen nintzen, oso-osu bakarrik. Duintasuna ere galtzen duzula esango nuke. Hondoan jotzen duzu. Irteteko eguna iristen denean, baina, gauzak ez dira askoz hobekak. Zailagoa da handik irtetea topatzen duzunari aurre egitea. Hala ere, esan nahi dizut kartzelan lagun onak ere egin ditudala,

dokumentalean nirekin batera agertzen den Joxepo esaterako [Jose Mari Larrañaga azkoitiarra]. Arnaldo Otegi ere hantxe topatu nuen, Martutenen. Bere babesa ere izan nuen.

Droga kontuengatik kartzelaratu zintuzten. Dokumentalean argi diote kartzela ez dela halako menpekotasunak dituen jendea tratatzeko lekua. Zer diozue?

Ez, ez da. Ez da behar bezala egiten. Nire lagun batek, adibidez, metadona hartzen zuen kartzelan eta askatasuna eman ziotenean ez zioten inolako jarraipenik eman kalean eta berriro erori zen mundu horretan. Ni *Proyecto Hombre* ibilitakoa ere banaiz, baina behin eta berriro jausi nintzen. Gogoratzten dut arrebak *Proyecto Hombre*koa bukatzen banuen bere ezkontzako aitabitxi izendatuko ninduela agindu zidala, eta oso oroitzapen onak ditut egun hartaz. Dokumentalean agertzen naiz argazkiarekin. Ikusi duzu? Polita da, ezta? Sekulako familia daukat.

Irteera eguna aipatu duzu. Kontaiguzu zer sentitu zenuen?

Batetik, poza, eta bestetik, beldurra. Eta lotsa handia ere bai. Jendeak alboratuko zaituen beldurra izaten duzu. Egindakoaz damututa zaude, baina badakizu kopetan etiketa bat daramazula, "honako hau kartzelan egon da" dioena. Nire kasuan, badut familia bat asko lagundu didana, eta haiiei esker ari naiz aurrera egiten. Arrats gobernuz kanpoko erakundean ere asko lagundu didate. Izan ere, gogorra da bizitza berri bati ekitea. Dena laga behar duzu atzean, ingurukoek lagunduta edo ez, baina zeuk egin behar duzu aurrera, eta bene-benetan: oso-oso gogorra da. Familiagatik egin beharra neukan, hala ere. Familiagatik eta neure buruagatik ere bai, ez nuelako txar gehiago merezi. Kartzelan

sartu aurretik igeltseroa nintzen ni, eta Martutenetik irten berritan, inoiz ez beste curriculum bidali nituen hara eta hona. Ez da erraza, hala ere, norbaitek gu hartzea. Baztertuta gaude. Etxea topatzea ere ez da erraza. Kartzelako azkeneko hiru urteak hirugarren graduari egin nituen eta ondoren, Txominenean bizi izan nintzen, kartzelatik oso gertu. Etxetik entzuten nituen kartzelarioen aginduak-eta. Orain, Donostian bizi naiz,

Loiolan, pisu konpartitu batean, eta lana ere badukat. Garbiketarako egiten aritzen naiz.

Dokumentalean Zaballako kartzela eta beste makrokartzela handi batzuk ere aipatzen dituzte. Zer iritzi daukazu horien inguruan?

Lotsagarria dela. Kartzelan daudenetako askok kanpoan egon beharko lukete, laguntza jasotzen. Laguntasuna da hemen gizarteratzeko giltza. Guxieneko laguntasun bat jasotzen duena ez da berriro itzultzen kartzelara. Makrokartzela horietan diru asko ari dira xahutzen, eta garbi daukat diruduntzat izango direla. Guk Martutenen ikusi duguna maketa horietan erakusten dutenaren oso diferentea da.

Zure bizitzak beste norabide bat hartu du. Zer ba-

lorazio egiten duzu?

Orain zoriontsua naiz. Gaixotasun larri bat daukat, eta tratamendua dela-eta, ez naiz ondo pasatzen ari, baina bizitzeko gogoia daukat, eta borrokatzeko prest nago. Familia ona daukat. Ilobatxoak ere baditut, polit-politak, eta haiengandik ere egin beharra daukat. Etxean Arratsekoek oparitutako koadro handi bat daukat. Nire familiako denak ageri dira, eta momentu ahulak ditudanean eskuan hartu eta 'zuengandik egingo dut' esaten diot neure buruari. Indarra ematen didate. Ahaleginak merezi du. Ni egon nintzen egoeran daudenei esango nieke eskatzeko laguntza, beldurrik gabe. Ez lotsatzeko.

“Ni egon nintzen egoeran daudenei esango nieke eskatzeko laguntza”

TXIRRISTAKA TABERNA

*Mila esker, 30 urtez,
pausoz pauso hazten laguntzeagatik.*



Mendarozabal, 1
Tel.: 943 75 61 39
(Mendaro)





Maiatzean...

JAIOTAKOAK



Ane Aranburu Arrizabala- **Ekaitz Dominguez** **John Ander Campos**
 ga Apirilak 25 Ochoa Maiatzak 17 Mejia Maiatzak 20
 Ramon eta Maria Gorka eta Nerea Jhonny eta Karina

Manex Irureta Arakistain **Maialen Langara Irondo**
 Maiatzak 24 Maiatzak 27
 Asier eta Nagore Adrian eta Iratxe

EZKONTZAK

Juan Francisco Zafra eta Rosibel Robledo • Maiatzak 10

HILDAKOAK

Milagros Berganzo Ircio • 82 urte • Maiatzak 1
 Jose Luis Rezola Garmendia • 66 urte • Maiatzak 12
 Hortensia Perez Gonzalez • 85 urte • Maiatzak 13
 Maria Pilar Astigarraga Iglesias • 42 urte • Maiatzak 15
 Olegario Gonzalez Sanz • 88 urte • Maiatzak 16
 Candi Arregi Bastida • 73 urte • Maiatzak 17
 Julian Agirregomezkorta Irastorza • 69 urte • Maiatzak 17
 Alberto Gomez Sanchez • 39 urte • Maiatzak 20
 Rafael De la Fuente Ortiz • 82 urte • Maiatzak 21
 Soledad Iñiguez Agirre • 92 urte • Maiatzak 23
 Jesus Hoyos Pedrosa • 67 urte • Maiatzak 26

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
 TRASLADOAK
 KOROAK**

**NORBANAKOEI
 eta
 KONPAINIEI
 zuzenduriko zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
 zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27

(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56

(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik Elgoibarko Izarrako bazkideek **3 euro** ordaindu behar dute eta gainontzekoek **4 euro**.

Jokatutako hamar lasterketetatik hamarrak irabazi ditu Imanol Alvarezek

Euskadiko Txapelketan bigarren egin zuen

Denboraldi biribila egin du Elgoibarko Lagun Taldeakeko Imanol Alvarez txirindulari gazteak. Jokatu dituen hamar lasterketetatik hamarrak irabazi ditu, azkena joan zen asteburuan, Arrasaten. Iaz, urtebete zaharragoekin lehiatu zen Alvarez, eta ezin esan gaizki moldatu zenik, garaipen bat edo beste ere eskuratu zuelako. Aurten, baina, infantil mailan egongo den azken urtean, erabatekoa izan da errepidean erakutsi duen nagusitasuna. Infantilek jokatu dituzten hamar lasterketatik hamar irabazteaz gain, Euskadiko txapelketan bigarren egin du txirindulari elgoibartarrak. Datorren urtean errepidean lehiatzen hasiko da, kadeteetan, eta zailagoa izango duela aitortu arren, haste-gogo biziz dagoela nabarmendu du.



160 ume eta gaztek parte hartuko dute Elgoibarko Kirol Campusean

160 lagunek parte hartuko dute Elgoibarko Udal Kirol Patronatuaren kirol campusean. Bi maila bereiztuko dituzte. Haurren kirol udalekuan 135 hurrek parte hartuko dute eta 25 gaztek goi mailako campusean. Guztira hogeai saio izango dituzte, ekainaren 24tik uztailearen 19ra arte, 9:30etik 12:30era. Hamahiru kirol probatuko dituzte. Tituludun zazpi monitorea arduratuko dira kirol campusa zuzentzeaz, baina Sanlo eskubaloi taldekoak eta Urbizi buzero taldekoak ere lagunduko dute, eskubaloia eta urpekaritza landuko duten egunetan.

Nahaste Borraste proba, ekainaren 28an

Gaur zortzi, ekainaren 28an, jokatuko da aurtengo Nahaste Borraste proba. Korrika, zakua bizkarrean hartuta eta bizkletan jardun beharko dute partaideek. 19:00etan hasiko da lasterketa Kalegoen plazan. Interesatuak egunean bertan eman ahal izango dute izena, proba hasi aurretik.

Unai Elortza elgoibartarra bigarren, Gipuzkoako Bolo Txapelketan

Unai Elortza elgoibartarra bigarren sailkatu zen Gipuzkoako Bolo Txapelketan, Ibai Diez eibartarraren atzetik. 40 txirilo bota zituen Erlortzak, eta bi gehiago Diezek. Taldeka, Iker Izagirre eta Unai Elortza elgoibartarrak nagusitu ziren, 72 txirilorekin. Bigarren, Asola Berri taldeko Ibai Diez eta Ganix Rodriguez eibartarrak sailkatu ziren, 71 txirilorekin.

Bihar, hilak 22, Lehendakari Txapelketa jokatuko dute Azpeitin, Garmendipe bolatokia. Gipuzkoako txapelketan lehenengo 64en artean sailkatutakoek parte hartuko dute.

Jose Luis Larrañagak irabazi du Mekatar-Iriondo xake txapelketa



Jose Luis Larrañagak irabazi du Mekatar-Iriondo xake txapelketako finala, eta Markel Kerexeta nabarmendu da 14 urtez azpikoen sailean, Urko Iriondori irabazita. Federatu gabekoen artean, berriz, Oscar Diezek irabazi zuen. Diezek laugarren egin zuen sailkapen nagusian. Txapelketan 36 lagunek parte hartu dute.

Maite Maiorak bigarren egin du Haria Extremen, Lanzaroten jokaturako Espainiako Kopako lasterketan

Hiru ordu eta sei minutu behar izan zituen Maiorak 32,5 kilometroko ibilbidea osatzeko

Garairak pilatzen jarraitzen du Maite Maiora mendarorak. Azkena Lanzaroten lortu du, Espainiako Kopako Haria Extreme lasterketan. 32,5 kilometroko lasterketa da, eta korrikalariak 1.450 metroko desnibel positiboa gainditu behar izaten dute. Hasi eta berehala, lasterketa buruan jarri zen Maite, Eva Maria Moreda baleartarrarekin lehian, baina azkenerako bien arteko tartea zabaldu egin zen, eta Moredak aurrea hartu zion mendarorari. Bera izan zen helmugaratzen azkarena, 3:06:21eko denborarekin [Iaz Oihana Kortazarrek ezarritako errekorra ondu zuen]. Maite Maiorak 3:06:55ko denboran bukatu zuen proba. Gizonezkoetan, Luis Alberto Hernando nagusitu zen (2:34:17).



Arg.: Carlos Diaz Recio

Euskadiko Cross Country txapelketa jokaturako dute ekainaren 29an Idotorben



San Pedro jaien barruan Euskadiko Cross Country moto txapelketa jokaturako dute ekainaren 29an Idotorben. Euskal Herriko, Asturiako eta Gaztela Leongo 90 bat bat gidarik hartuko dute parte, eta horien artean izango da Aitor Osoro elgoibartarra ere. Partaideek hamabost kilometroko zirkuitoa osatu beharko dute Idotorbeko berdeguneetan eta Moru eta Arrate artean. Euskadiko txapelketako hirugarren proba izango da. Entrenamendu saioak 16:30ean hasiko dira, eta ordubete beranduago, 17:30ean hasiko da lasterketa. Sari banaketa, berriz, iluntzean egingo dute, 19:30ean, frontoian.

51 plazatako marka ontzen saiatuko da Mendaroko gizon probetako taldea

Iazko Kontzezio Azoka jaien barruan egin zuten erakustaldian lortutako marka ontzen saiatuko da Mendaroko gizon probetako taldea bihar, ekainaren 22an, Mendaron. Gipuzkoako txapelketaren kontra lehiatu ziren orduko hartan, Berrobiko taldearen kontra, eta 51 plaza egin zituzten mendarorrek. Biharko saioa Gipuzkoako Txapelketarako entrenamendu gisa hartuko dute. Izan ere, gertu dute txapelketako lehenengo saioa. Ekainaren 29an jokaturako dute, Orion. Guztira lau talde ariko dira: Orio, Berrobi, Deba eta Mendaro. Txapelketako bigarren saioa etxean jokaturako dute, uztailearen 13an, 18:00etan.

Bi saio horietako emaitzak zenbatu ostean, jakingo dugu zeintzuk arituko diren finalerako. Abuztuaren 4an jokaturako dute, Aian.

EMAITZAK

PILOTA

Lagunak Txapelketa

Alex Azpillikueta **9** - Imanol Salegi **18** (Benjaminak)

Imanol Salegi **12** - Harkaitz Maiora **18** (Benjaminak)

Txapelketa honetako finalak atzo arratsaldean

jokaturako zituzten, edizio hau itxi ondorenean.

Atzoko finalistak hauek ziren:

Benjaminetan: Unai Sanchez-Harkaitz Maiora

Alebinetan: Danel Zubizarreta-Julen Urruzola

Urte amaierako eskubaloi entrenamendua

Ikasturteari amaiera emateko, eskubaloi entrenamendu berezia antolatu du Sanlok biharko, eta 10:00etatik 12:30era bitartean eskubaloiarekin zerikusia duten jarduerak egingo dituzte kiroldegian. 2004tik 2006ra jaiotako neskamutilek parte hartu ahal izango dute. Saioa doan izango da eta kiroldegian agertzearekin nahikoa da. Ordutegi horretan bertan, datorren urterako izenemateak egiteko aukera eskainiko dute. Bi astez egongo da zabalik izena emateko epea. Emailaz ere eman daiteke izena, sanlolatxo@gmail.com helbidean.

Uztailaren 19ra arte dago zabalik Elgoibarko Izarraren Txiki Eguneko bazkarirako izena emateko epea

Txiki Egunerako kamisetak atera ditu euskara elkarteak 10 euroan

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak herri bazkaria antolatu du Txiki Egunerako, eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Interesatuak uztailaren 19ra arte izango dute izena emateko aukera, elkarteak Ubitarten duen lokalean bertan edo Internetez, www.elgoibarkoizarra.com webgunean. Elkarteko bazkideek 17 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 19 euro. Menua ondorengoa izango da: Pasta entsalada, okela gisatua, gazta-tarta, ogia, ura, ardo beltza, sagardoa eta kafea. Begetarianoek izena ematerakoan jakinarazi beharko dute eta menua aldatzeko aukera izango dute. Informazio gehiagorako 943 741 626 telefonora deitu daiteke.

Kamisetak salgai

Aurten, berrikuntza moduan, Txiki Egunerako kamisetak atera ditu Elgoibarko Izarrak. 10 euro balio ditu kamisetak (bazkideentzat 9 euro) eta Elgoibarko Izarrak Ubitarten daukan bulegoan daude salgai. Aurrez telefonoz (943 741 626 -Ainhoa) deituz gorde daiteke kamiseta.



Javier Arrizabalaga Aiastiako alkate ohia omendu zuten Sanmigeldarren Egunean



Joan zen domekan ospatu zuten Aiastian Sanmigeldarren eguna, eta ospakizunen artean, Javier Arrizabalagari egin zioten omenaldia. Hainbat urtetan Aiastiako auzo-alkate izan da, eta auzoaren alde eginiko lana eskertu zioten.

Giro onean joan zen Sanmigeldarren eguna, eta umore puntua Zuhaitz Gurrutxagak jarri zuen, bere futbol ibilbideari buruzko bakarriketarekin. Euskaraz egin zuen bakarriketa lehenengo aldiz. Bere sustraietara itzuli zen Gurrutxaga, eta gustura jardun zuela adierazi du Facebook bidez.

Udako Euskal Unibertsitatera joateko laguntzak

Elgoibarko Udalak UEUko ikastaroen matrikula ordaintzeko diru-laguntzak emango dizkie, beka gisa, Elgoibarren erroldatuta daudenei. Langabetuen, ikasleen, pentsiodunen eta jubilatuen kasuan, matrikula osoa ordaintzeko diru-laguntza izango da. Langileen kasuan, berriz, Udalak matrikularen erdia ordaintzeko diru-laguntza emango du.

Aurten, UEUK 41 ikastaro eskainiko ditu. Horietako 20 Eibarren izango dira, eta gainontzekoak Iruñean eta Baionan izango dira. Ikastaroei buruzko informazio eguneratua www.ueu.org web gunean aurki daiteke eta diru-laguntza hauei buruzko informazioa 943 744 366 telefono zenbakira deituta, euskara@elgoibar.net helbidera mezua bidalita edota www.elgoibar.org web gunean.

Izena emateko epea ikastaroa hasi baino astebete lehenago bukatuko da eta matrikula UEUren web gunean egin ahal izango da. Informazio gehiagorako, Udaleko Euskara Zerbitzura joan edo 943 744 366 telefono zenbakira deitu daiteke.

Aurten ez dute San Joan jairik ospatuko Altzolan

Elgoibarren eta Mendaron domeka gauean piztuko dituzte San Joan suak

Zubibai elkartekoek jakinarazitakoaren arabera, aurten ez da San Joan jairik ospatuko Altzolan. Iaz bizilagun batzuen ekimenez osatu zuten jai batzordea, baina aurten ez du inork hartu ardura hori. Beraz, ofizialki ez da ekintzarik egongo asteburuan. Zubibai elkarteak beste zeregin batzuk jarri ditu aurten bere lehentasunetan, eta bizilagun guztiekin hizketan dihardute, auzoaren hobekuntza lanak aurrera eraman ahal izateko. Txosten bat prestatzen ari dira auzoak eta auzokideek dituzten beharrekin, eta prest dutenean Udalean aurkeztuko dute.

Elgoibarren eta Mendaron

Domekan, San Joan bezpera egunean piztuko dituzte suak Elgoibarren eta Mendaron. Iaz bezala, Santa Ana kalearen amaieran piztuko dituzte suak Elgoibarren, Goiko Errota zubiaren alboan.

Mendaron, bestalde, In Leike aisialdi taldeak prestatu ditu San



Joan suaren inguruko ekitaldiak. Domekan izango dira, 18:30etik aurrera, Herriko Enparantzan. Umeentzako jolasak egingo dituzte lehenengo, eta gauean piztuko dute sua.

Paella jan herrikoia antolatu dute San Pedro jaietarako

Ekainaren 29an izaten da San Pedro Eguna, eta urtero legez, bezperan hasiko dira jaiak Idotorbe auzoan. Aurtengo berrikuntzen artean paella jan herrikoia nabarmendu dute antolatzaileek. Domekan egingo dute, hilaren 30ean. Irekia izango da, eta herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte. Tiketak San Pedron bertan jarri dituzte salgai, 5 euroan.

Jaiak barixakuan hasiko dira. 19:00etan emango diete hasiera egitarauari, eta 21:00etan auzokideen afaria egingo dute San Pedro elkartearen. Afaritara joan nahi dutenek 616 524 106 telefonoan eman beharko dute izena. 23:00etan, mus txapelketa egingo dute.

San Pedro Egunean prozesioa, pilota partidak, moto lasterketa, bolo txapelketa eta erromeria izango dira, besteak beste. Domekan amaituko dira jaiak: Paella jana, txalaparta, idi demak, Haritz Euskal Dantzari taldearen ikuskizuna eta trikitilariak izango dira.



Gazteen Aisialdi ohituren diagnosia aurkeztuko dute egunean

Gazteek aisialdian dituzten ohiturei buruzko azterketa egiten ari da Udala, eta proiektuaren diagnosia aurkeztuko dute egunean. 18:00etan izango da, Kultur Etxean.

Euskara azterketak prestatzeko ikastaroak AEKn

Iraileko azterketak prestatzeko eskolak emango ditu AEK euskaltegiak uztailean eta irailean. EGA zein HABEK antolatzen dituen 2. eta 3. maileri dagozkien azterketak prestatzeko aukera izango da. Izena emateko edo informazioa eskatzeko, jo AEK euskaltegira (PlazaTxikia, 3), 607 601 423 telefonora deitu edo elgoibar@aek.org helbidea erabili daiteke. Ekainaren 27an amaituko da izena emateko epea.

Taupada antzerki taldea ezagutzeko ate irekiak, bihar

Taupada antzerki taldearen lana eta lokala ezagutzeko ate irekiak antolatu dituzte biharko. 10:00etatik 14:00etara bitartean zabalduko dute Pedro Mugurutzako eskolatan duten lokala, eta edozein herritarrek izango du bisitan joateko aukera.

LANA.....
Eskara

- Gizonezkoa lanerako prest. Baserri lanetan esperientzia handia. ☎ 943 748 141
- Gizonezkoa zerbitzari lanetarako prest. ☎ 692 332 871
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 686 052 082
- Nagusiak zaintzen esperientzia handia dut. Erreferentzia onak. ☎ 616 328 060
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ 605 720 298
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ 654 416 179
- Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut, Mendaron. ☎ 666 614 519 (Oihana)
- Neska euskalduna uztailean umeak zaintzeko prest. ☎ 617 905 402
- Emakumea lanerako prest. Garbiketak egiteko edo umeak zein nagusiak zaintzeko prest. ☎ 608 474 923
- Emakumea nagusiak ziantzeko prest, arratsalde edo gauzez. Esperientzia handia. Etxeko lanak ere egingo nituzke. ☎ 682 255 834
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari lanetarako edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 638 884 104
- Gizonezkoa nagusiak zaintzeko edo garbiketak egiteko prest. ☎ 686 077 316
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Sukalde laguntzaile, hoteleko harreran, garbiketa lanetan edo pertsonak zaintzen egingo nuke lan. Berehala lanean hasteko prest. ☎ 625 895 460

- Emakumea eskaintzen da lanerako. Sukalde laguntzaile, hoteleko harreran, garbiketa lanetan edo pertsonak zaintzen egingo nuke lan. ☎ 608 474 923
- Neska lan egiteko prest. Nagusiak zein umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 648 054 046
- Neska lan egiteko prest. Nagusiak zein umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 943 031 329
- Neska asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zein umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 646 821 678
- Gizonezkoa lan bila: kamioi gidari edo banatzaile lanetarako prest. Gidabaimen guztiak ditut. ☎ 671 368 324
- Emakumea arratsalde edo gauzez lan egiteko prest. ☎ 680 121 252
- Neska eskaintzen da lanerako. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 690 925 929
- Emakume arduratsua lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo etxeak garbitzen egingo nuke lan. Orduka edo interna. ☎ 602 068 313
- Klase partikularrak ematen ditut, DBH4ra arteko mailetan. Uztailean, goizez. ☎ 688 664 727
- Gizonezkoa lan bila. Zerbitzari edo sukalde laguntzaile lanetan egingo nuke lan. Elikagaiak eraldatzeko agiria. Gidari lanetarako ere prest. B1 gidabaimena daukat. ☎ 632 411 458
- Emakumea lanerako prest. Garbiketak egiteko edo umeak zein nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. Esperientziaduna. ☎ 616 457 254

Eskaintza

- Emakume euskalduna behar da adineko pertsona bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 646 163 055
- Datorren ikasturterako LH5eko ikasle bati eskola partikularrak emateko pertsona euskalduna behar da. ☎ 628 524 420

ETXEBIZITZAK.....

- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 686 052 084
- Pisua hartuko nuke alokairuan, 3 logelakoa. ☎ 671 289 584
- Pisua alokatzen dut Urazandin. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, despentsa, jangela eta egongela. Guztiz berriua. Berokuntza elektrikoarekin. ☎ 943 743 068 / 677 463 874
- Logela alokatzen dut Elgoibar erdigunean. Etxe guztia erabiltzeko aukera: komuna, sukaldea... ☎ 672 382 466

LOKALAK.....

- Lokal independentea alokatzen dut Meka eta Institutotik gertu. Lokal sozial edo elkarte gastronomiko batentzako oso egokia. Aparkamentu handia, legez. Aukera handiko lokala, arazorik gabekoa. Merke. ☎ 660 969 679

BESTELAKOAK.....

- Logela klasikoa salgai, egoera onean. Bi ohe (90x1,96cm), somierra eta koltxoia barne, mahaitxo ere bai. 600 euro. ☎ 659 986 506



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



- Nire komunitatean, urteak joan eta urteak etorri, jabe bera da Lehendakari ardura duena, eta inork ez dio ezer esaten. Zer egin genezake? Legeak dio lehendakari ardura eskubide eta betebeharrak dela. Obra Berria izendatzen duen eskrituran bertan jartzen du nola hautatu behar den lehendakaria. Hautaketa txandaka edo zozketa bidez egiten da. Datorren urteko Batzarrean eska eza-za idatziz batzar kideak aldatzeko eskaria, eta era horretan jabeen funtzionamendu demokratikoa ziurtatuko duzue. **Gomendioa: Badaezpada, Lehendakaria ez badago ere, komenigarria da hura ordezkatzeko duen Lehendakariordea aukeratzea. Premia izanez gero, erabakiak hartzeko bide ematen du hori egiteak.**

- Nire aitak 85 urte ditu eta datorren urtean komunitateko Lehendakari izatea dagokio. Ardura hori saihestu genezake? Legeak bide ematen du gaixotasun kontuengatik etxe jabe bat lehendakari izateko libratzeko, bati arrazoi hori ziurtatuko duen agiriak epaitegian aurkeztuta. Epaia iritsi bitartean, izan aldekoa edo kontrakoa, beste pertsona bat aukeratuko da aldi batez lehendakari izateko. **Gomendioa: Ohikoa da ardurak duen erantzukizunarengatik adineko pertsonari edo ezinduei Lehendakaritza ardurarik ez ematea, eta haren lekuan beste bat aukeratzea.**

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Ostegunean urteak egin dituen Pikupeko mutil txintxoenari, Elgoibarko sorginen partez. Zorionak, **Markell**



• Zorionak, **Maidier**, ekainaren 23an 6 urte egingo dituzulako. San Juan suaren bueltan ospatuko dugu. Ama, aita eta Adur.



• Zorionak, **maittia**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Etxekoan eta bereziki asko maite zaituen anaia Markelen partez.



• Zorionak, **Malen maittia!** Dagoeneko 6 urte! Oso ondo pasatu genuen. Patxo pila eta marrubizko berezi bat Juneren partez.



• Iritsi da hainbeste espero zenuen eguna, **Marial** 4 urte! Zorionak, maitea, bereziki Karlaren partez.



• Zorionak, 40 urte beteko dituen horri, fitroa pasatzeko.



• Zorionak, **Malen**, eta muxu handi bat etxekoan partez, asteazkenean 7 urte egin zenituelako.




• Zorionak, gure printzesari, gaur urtetxo bat egin duelako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Malen eta Almar**, astelehenean 5 urte egingo dituzuelako. Ondo pasa zuen egunean. Aita eta amaren partez.



• Ederki pasatuko dugun susmoa daukagu! Zorionak, **bikotel** Elgoibarko lagunak.



• Zorionak, **Idoia eta Mikell** Iritsi da zuen eguna! Ondo pasa eta besarkada bat, bereziki, etxeko sorgintxoaren partez.



• Zorionak, **Anel** Familiakoan partez, zure 6. urtebetetzean.



• Zorionak, **Maddi**, ekainaren 26an zure urtebetetze eguna delako. Muxu handi bat etxekoan eta bereziki, Aneren partez.



• 3,2,1... Puuuuummm! Zorionak, **bikote**, Mintxetako lagunaren partez.



• Zorionak, **Mikel eta Oihanal** Oso ondo pasatu genuen zuen ezkontza egunean. Etxekoan partez, muxu asko.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

21 barixakua

Musika

18:30 Kale kantariak

Entsegu egingo dute Kultur Etxean, azken zapatuko ferian abesteko.

22 zapatua

Ate irekiak

10:00 Taupada antzerki taldea

Taupada taldearen lana eta lokala ezagutzeko jardunaldiak. Edozein h

23 domeka

San Joan gaua

18:30 Umeentzako jolasak

Umeenatzako tailerrak eta jolasak antolatatu ditu In Leike aisialdi taldeak. Mendaron, Herriko Enparantzan.

Gauean, San Joan sua

Mendaron, Herriko Enparantzan.

Elgoibarren, Santa Ana kale amaieran,

Goiko Errota zubiaren ondoan.

25 martitzena

Gastronomia

19:00 Pintxo lehiaketa

Barixakura arte egongo da pintxoak dastatzeko aukera.

26 eguaztena

Bilera

19:00 Herri biltzarra

EHBildu Elgoibarrek deituta, hondakinen gaia landuko dute. Kultur Etxean.

27 eguena

Aurkezpena

18:00 Aisialdi ohituren diagnostia

Gazteek aisialdian dituzten ohituren ikerketa egiten ari da Udala, eta diagnostia aurkeztuko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

28 barixakua

Kurtso amaiera

19:00 BH Institutuko diploma banaketa

Herriko Antzokian.

Kirola


19:00 Nahaste Borraste

Kimetz elkarteak antolatuta, Kalegoen plazan.

Musika


19:45 Abesbatzaren kontzertua

Elgoibarko Abesbatzak eta Lazkaoko Helduen Abesbatzak kontzertua eskainiko dute. San Bartolome parrokan.



Ostiral honetan udari ongi etorri festa ludotekan!
17:00etatik aurrera.

Adi! Ekainaren 24tik aurrera udako programaketa hasiko da. Astelehenetik ostiralera egongo gara martxan.



OKINDEGIA	BOTIKA ORDUTEGIAK	GUARDIAK	Egunez	Gauez
23 domeka: IBARRENEA	9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00		9:00 - 22:00	22:00 - 9:00
	Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)- Tel: 943 756 142		21 Barrenetxea 22 Fernandez Goizez: Yudego	Barrenetxea Yudego
	Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638		23 Fernandez 24 Garitaonandia 25 Etxeberria 26 Fernandez	Yudego Garitaonandia Etxeberria Etxeberria
	Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384		27 Yudego 28 Zabaleta	Yudego Yudego

tel. 943 740 288

www.alzola.com



"Iturri beretik, emari berria"

alzola

basque water



alzola

basque water



**Ondo pasa
Sanjuanetan!**



**TXIKI EGUNERAKO
KAMISETAK SALGAI!**

Elgoibarko Izarraren bulegoan

10€ tan

[Bazkideek 9€ tan]

 **ELGOIBARKO IZARRA**
KULTUR ELKARTEA

Jaixak ondo pasau!

Aurrez enkargatuz gero hobel!

SAN PEDRO

J R T E T X E R

SAN PEDRO AUZOA

Tel. 943 740 010

ELGOIBAR





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ernuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ernuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Uruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
pagoagasa@euskalnet.net

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20



Gremioen GIDA